



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
IJITO HERRIAREN ERABATEKO
SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA
SOZIALERAKO KONTSEILUAREN
BIGARREN OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**ACTA DEL SEGUNDO PLENO DEL
CONSEJO PARA LA PROMOCION
INTEGRAL Y PARTICIPACION SOCIAL DEL
PUEBLO GITANO EN EL PAIS VASCO.**

(2004ko ekainaren 21eko bilera)

(Reunión del día 21 de junio de 2004)

Deialdia egin duena:

Kontseiluburua: Javier Madrazo Lavín jauna.-
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua

Convoca:

Presidente: D. Javier Madrazo Lavín.- Consejero
de Vivienda y Asuntos Sociales

Bertaratu direnak:

Asistentes:

Kontseiluburuordea: Bartolomé Jiménez Gracia
jauna. Gao Lacho Drom elkarteko burua.

Vicepresidente: D. Bartolomé Jiménez Gracia.
Presidente de la Asociación Gao Lacho Drom.

Angel Elías Ortega jauna. Gizarte Gaietako
sailburuordea.

D. Angel Elías Ortega. Viceconsejero de Asuntos
Sociales.

Javier Dean Pinedo jauna. Etxebizitza
sailburuordea.

D. Javier Dean Pinedo. Viceconsejero de
Vivienda.

Izaskun Moyua Pinillos andrea. EMAKUNDEko
idazkari nagusia.

Dña. Izaskun Moyua Pinillos. Secretaria General
de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.

Jon Iñaki Betolaza San Miguel jauna. Osasun
Saileko Finantziario eta Kontratazio zuzendaria.

D. Jon Iñaki Betolaza San Miguel. Director
Financiación y contratación de Sanidad.

Xabier Sanchez jauna. Kultura Saileko Gazteria
zuzendaria.

D. Xabier Sánchez. Director de Juventud del
Dpto. de Cultura.

Montserrat Rejado Corcuera andrea. Justizia,
Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Gizarteratze-
zuzendaria.

Dña. Montserrat Rejado Corcuera. Directora de
Inserción Social del Dpto. de Justicia-Trabajo y
Seguridad Social

Javier Inda jauna. Herrizaingo Saileko
zuzendaria.

D. Javier Inda. Director del Dpto. de Interior

Patxi Sandín Ramos jauna. Arabako Foru
Aldundiko Gizarte Gaietako zuzendaria.

D. Patxi Sandín Ramos. Director de Asuntos
Sociales de la Diputación Foral de Araba.

María Carmen Marín Guruceaga andrea.
Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide,
Enplegu eta Gizarteratzeko Foru Diputatua.

Dña. Mari Carmen Marín Guruceaga. Diputada
Foral para los Derechos Humanos, el Empleo y la
Inserción Social, de la Diputación Foral de
Gipuzkoa

Flori Núñez andrea. EUDEL. Sestaoko Udala.

Dña. Flori Núñez. EUDEL. Ayto. de Sestao.

Rosa Romero Zalduendo andrea. Gao Lacho
Drom elkartea.

Dña. Rosa Romero Zalduendo. Asociación Gao
Lacho Drom.

Eduardo Motos Jiménez jauna. Barakaldoko
Ijitoen elkartea.

D. Eduardo Motos Jiménez. Asociación de
Gitanos de Barakaldo.

Manuel Vizarraga Motos jauna. Kalé Dor
Kayiko elkartea.

D. Manuel Vizarraga Motos. Asociación Kalé
Dor Kayiko.

Oscar Vizarraga Muñoz jauna. Kalé Dor Kayiko
elkartea.

D. Oscar Vizarraga Muñoz. Asociación Kalé Dor
Kayiko.



José Ramón Jiménez Maya jauna. Kamelamos Adikerar elkarte.

José Eugenio Jiménez Barrul jauna. Kamelamos Adikerar elkarte.

Nuria Artacho San Miguel andrea. Secretariado General Gitano Fundazioa.

Conchi Franco Ramírez andrea. Gipuzkoako Caritas.

Begoña Lasa Salamero andrea. Enseyantes con Gitanos (ADARRA kolektiboa)

Pilar Astiazarán Aristizabal andrea. Gipuzkoako Gizarte Langileen Elkargoa, Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa(hitzarekin baina botorik gabe)

Bertaratu ezina zuritu dutenak:

Javier Madrazo Lavín jauna. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua

Abel Ariznabarreta jauna. Hezkuntza sailburuordea

Pedro Fernández de Larrinoa jauna. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze eta Adinekoen zuzendari nagusia

Kontxi Gabantxo andrea. Bermeoko Udaleko zinegotzia. EUDEL

Pascual Borja Borja jauna. Gao Lacho Drom elkarte

Luis Motos jauna. Barakaldoko Ijitoen elkarte

Etorri ez direnak:

Miguel Ángel Echevarria jauna. Gasteizeko Udaleko zinegotzia. EUDEL.

Carmen Jiménez Jiménez andrea. Iniciativa Gitana elkarte.

Marcelo Borja Motos jauna. Iniciativa Gitana elkarte.

Mario Gabarre Jiménez jauna. Iniciativa Gitana elkarte.

D. José Ramón Jiménez Maya. Asociación Kamelamos Adikerar.

D. José Eugenio Jiménez Barrul. Asociación Kamelamos Adikerar.

Dña. Nuria Artacho San Miguel. Fundación Secretariado General Gitano.

Dña. Conchi Franco Ramírez. Caritas de Gipuzkoa.

Dña. Begoña Lasa Salamero. Enseyantes con Gitanos (colectivo ADARRA)

Dña. Pilar Astiazarán Aristizabal. Colegio de Trabajo Social de Gipuzkoa, en representación del Consejo Vasco de Bienestar Social (con voz y sin voto)

Excusan su asistencia:

D. Javier Madrazo Lavín. Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales

D. Abel Ariznabarreta. Viceconsejero de Educación

D. Pedro Fernández de Larrinoa. Director General de Inserción Social y Personas Mayores, de la Diputación Foral de Bizkaia.

Dña. Kontxi Gabantxo. Concejala del Ayto de Bermeo. EUDEL

D. Pascual Borja Borja. Asociación Gao Lacho Drom.

D. Luis Motos. Asociación de Gitanos de Barakaldo.

Ausentes:

D. Miguel Angel Echevarría. Concejel del Ayto de Gasteiz. EUDEL

Dña. Carmen Jiménez Jiménez. Asociación Iniciativa Gitana.

D. Marcelo Borja Motos. Asociación Iniciativa Gitana.

D. Mario Gabarri Jiménez. Asociación Iniciativa Gitana.

Gai-zerrenda:

- 1º.- Laneko plana aurkeztea.
- 2º.- Aurreko Kontseiluaren akta irakurtzea-onartzea.
- 3º.- Plana egiteko Batzordearen azken zirriborroa aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
- 4º.- “Idazkaritza Teknikoa” abiaraztearen gaineko Batzordeen informazioa.
- 5º.- “Batzorde Iraunkorra” eta izan daitezkeen beste batzordeak osatzea.
- 6º.- Eskariak eta galderak.

Bileraren garapena:

Bartolomé Jiménezek, Gao Lacho Drom elkarteko kide eta kontseiluburuordeak, ongi etorria egin die bertaratu diren guztiei eta kontseiluburuaren ezin etorria adierazi du. Ezarritako gai-zerrenda jarraitzeko eskatu du.

Angel Elías Ortégak, Gizarte Gaietako sailburuordeak, bertaratutako guztiak berriro agurtu ditu eta Kontseiluko zenbait kideren ezin etorria adierazi du; Iniciativa Gitana elkartearen idazki bat eman berri diotela esan du. Idazki horretan, Iniciativa Gitana elkarteak dio “ez duela gehiago Kontseiluan parte hartuko eta lagunduko, familia horiek (idazkian agertzen diren hainbat familia jakin aipatzen ditu) berriro Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzetan modu duinean birkokatzen dituzten arte”. Idazkia eta idazkiaren edukia 6. puntuari, “eskariak eta galderak” puntuari, aztertuko dituztela erabaki da. Hori erabaki eta gero, norberak bere burua aurkezteko eta noren ordezkari den esateko eskatu die bertaratutakoei.

Bartolomé eguneko gai-zerrenda irakurri du eta ontzat ematen den galdetu du. Denek baietz esan dute. 2. puntura igaro da; inork aurreko bilkurako aktaren inguruan zerbait esan nahi duen galdetu du. Egin beharreko aldaketak egin ostean, akta onartu egin da.

Bartolomé hirugarren puntura pasatzeko esan du eta Fernandori eman dio hitza.

Orden del día:

- 1º.- Presentación del plan de trabajo.
- 2º.- Lectura-aprobación del acta del Consejo anterior
- 3º.- Presentación y, en su caso, aprobación del borrador final que presenta la Comisión elaboradora del Plan.
- 4º.- Información de las Comisiones sobre la puesta en marcha de la “Secretaría Técnica”.
- 5º.- Constitución de la “Comisión Permanente” y otras posibles comisiones.
- 6º.- Ruegos y preguntas.

Desarrollo de la reunión:

Bartolomé Jiménez, miembro de la Asociación Gao Lacho Drom y Vicepresidente del Consejo, da la bienvenida a todas y todos y excusa la ausencia del Presidente del Consejo. Invita a seguir el orden del día que está establecido.

Angel Elías Ortega, Viceconsejero de Asuntos Sociales, además de saludar de nuevo a todas y todos, excusa la ausencia de algunos miembros del Consejo, y comunica que le acaban de entregar un escrito de la Asociación Iniciativa Gitana en la que comunica que “la Asociación abandona su participación y colaboración en el Consejo hasta que estas familias (se refieren a unas familias concretas a las que hacen referencia en el escrito) sean realojadas dignamente en viviendas del Gobierno Vasco”. El escrito y su contenido se decide que se abordarán en el punto 6º de “ruegos y preguntas”. Y a continuación, invita a hacer una breve presentación de las personas presentes para que cada una indique su nombre y a quién representa.

Bartolomé lee el orden del día y pregunta si se da por válido. Todas y todos asienten. Y pasando al punto 2º pregunta si alguien tiene algún comentario que hacer al acta del Consejo anterior. Tras introducir los cambios oportunos se da por aprobada.

Bartolomé invita a pasar al **punto 3º** y cede la palabra a Fernando

Fernandok guztiek eskutan duten azken zirriborroa azaldu du. Zirriborroaren nondik norakoak azaldu ditu: duela urtebete, administrazioetako eta elkarteetako ordezkarien arteko 14 lagunek batzorde bat osatu zuten modu paritarioan, Kontseilua bera sortu aurretik, eta batzorde hori hasi zen zirriborroa idazten. Batzordeak 9 bilera egin ditu, goiz osokoak guztiak ere. Lan-eskema bat onartu zen eta hasiera batean zirriborro partzialak egiten zituzten, eta azkenean, zirriborro osoak. Batzorde horrek Planaren zirriborro bat aurkeztu zion Kontseiluari eta azken honek zirriborrotzat onartu zuen. Jarraian, besteren artean hainbat gizarte-eragileri, parlamentuko taldeei eta zenbait adituri zirriborroa igorri zitzaientzen, Planari ekarpenak egin ziezazkieten. 7 ekarpen jaso ziren eta batzordearen maiatzeko azkeneko bileran aztertu zituzten.

Gaur aurkeztu den dokumentuan tarte horretan jasotako eta batzordeak onartutako ekarpenak barne hartuta daude. Plana Euskadin Ijito Herriak bizi duen egoeraren gaineko alde zuzeneko azterketa sakon eta zientifikorik izan gabe egin dute eta jakinaren gainean daude. Baina bestalde, Plana normalean urrunduta dauden bi munduren arteko hurbiltzearen ondorioa da. Bai administrazioetako, bai elkarteetako ordezkariak bileretan parte-hartze handia izan dutela eta prozesuaren balorazioa positiboa izan dela nabarmendu nahi izan du. Kanpoko aholkulari den heinean, Planaren prozesua zein izan den azaltzeko azken txosten bat idatziko du. Segidan, dokumentuaren zatiak azaldu ditu.

José Ramón Jiménezek, Kamelamos Adikerar elkarteetako, bere ustez Gipuzkoan hainbeste ijito ez daudela esan du, dokumentuak 3.000 daudela baitio. Bera 2.000-2.200 artean direlakoan dago.

Fernandok dokumentuko kopurua aldatu behar ote den galdetu die denei.

Bartolomek bere horretan uzteko proposatu du, ez baitago hori egiaztatzeko datu zientifikorik.

Conchik, Gipuzkoako Caritasekoak, dioenez, ijitoen kopurua 3.000tik gertuago dago 2.000tik baino, eta kopuru hori bere horretan utz daitekeela esan du, Planaren garapenean datu egiaztatutagoak izan arte.

Fernando explica el borrador final que todos tienen en sus manos. Relata la historia del borrador, cómo se inició hace un año tras constituir una comisión de 14 personas de manera paritaria entre representantes de las administraciones y de las organizaciones, comisión que se constituyó, antes incluso que el propio Consejo. La comisión ha tenido 9 reuniones de trabajo, todas de mañana completa. Aprobó un esquema de trabajo y ha ido haciendo borradores parciales en un principio, y borradores completos al final. Dicha comisión presentó al Consejo un borrador de Plan que aprobó como tal borrador. A continuación se envió el borrador a distintos agentes sociales, a los grupos parlamentarios, a algunos-as expertos-as etc para que pudieran hacer sus aportaciones al Plan. En total se recibieron 7 aportaciones que la comisión valoró en su última reunión de mayo.

El documento que se presenta ahora incluye las aportaciones que se han recibido durante este tiempo y fueron aprobadas en la comisión. Se es consciente de que se ha hecho un Plan sin tener un estudio profundo-científico previo sobre la situación del Pueblo Gitano en el País Vasco. Pero por otra parte, el Plan es fruto del acercamiento de dos mundos normalmente distanciados. Quiere resaltar que la participación, de los miembros representantes tanto de las administraciones como de las organizaciones, en las reuniones de trabajo, ha sido muy alta y la valoración del proceso seguido positiva. Como consultor externo, hará un informe final recogiendo todo el proceso de elaboración del Plan.

A continuación indica las distintas partes del documento.

José Ramón Jiménez, de la asociación Kamelamos Adinerar, comenta que cree que en Guipúzcoa no hay tantas personas gitanas (en el documento se dice que son 3.000). El cree que hay entre 2.000-2.200.

Fernando pregunta a todas-os si les parece que hay que cambiar la cifra que se recoge en el documento.

Bartolomé propone que se deje la cifra como está, ya que no hay datos científicos constatables.

Conchi, de Caritas de Guipúzcoa, dice que se está más cerca de las 3.000 personas gitanas que de 2.000., y que se podría dejar la cifra como está, hasta que en el desarrollo del Plan se puedan tener datos más constatados.

Angelek azaldu duenez, dokumentuan “gutxi-gorabehera” dio.

Izaskun Moyua EMAKUNDEko ordezkariak honako hau gehitzea proposatu du, kopurua aldatu gabe: “datu zehatz eta fidagarriak emango dituzten ikerketen zain egonik, honako hau esan dezakegu:...”.

Proposamena onartu egin da.

Oscar Vizarragak, Kale dor Kayiko elkarteko ordezkariak, horrelako esaldiek (“datu fidagarriagorik ez dagoen bitartean...”) dokumentuan agertzen diren beste datuentzat ere balio dezaketela gehitu du.

Montserrat Rejado Gizarteratze-zuzendariak hainbat zehaztapen egin nahi dizkio 3.5. kapitulari (Gizarteratzea eta enplegua). Kapitulu horretan badira zenbait ekintza berak ordezkatzeko duen sailak betetzeko errazak ez direnak, ez baitute ijitoen populazioari buruzko datu zehatzik. Eta gainera, aurreko Kontseiluan sailaren ordezkari izan zen lagunak gai hori aipatu zuela gogorarazi du.

Fernandok esan du egia dela, aurreko Kontseiluan horrelakorik esan zela, baina horretaz gain, adierazi du sailari eskatzen zitzaiona ez zela erregistro berezi bat izatea, zein den ijitoa eta zein ez den ijitoa bereizteko. Sailari eskatzen zitzaiona ijitoen elkarteengana gehiago hurbiltzea zela esan du, elkarte horiek jakin baitezakete baliabideak ijitoen familiengana heltzen ote diren, edo baliabide horiek egokiak ote diren.

Montserratek berriz esan du ez duela gustuko berak ordezkatzeko duen sailaren ardurapeko zenbait ekintza nola dauden adierazita, eta ekintza zehatz batzuk aipatu ditu: 3.5.1.3., 3.5.1.6., eta abar.

Begoña Lasa Enseñantes con Gitanos elkarteko ordezkariak “jarraipen berezia” (3.5.1.2. puntua), “berariazko egoera” (3.5.1.3. puntua), eta abar aipatzean, agian gehiegi zehazten ari ote den esan du.

Izaskunen ustez, ez da gauza bera gizarteratze-politiken eragina ezagutzea eta ijitoen elkarteetan gizarteratze-politika horiek nola baloratzen dituzten jakitea.

Angel matiza que en el documento se dice “aproximadamente”.

Izaskun Moyua, representante de EMAKUNDE, propone que sin cambiar la cifra se podría poner que: “a la espera de estudios que arrojen datos precisos y fiables, podemos decir que...”.

Se acepta la propuesta.

Oscar Vizarraga, representante de Kale dor Kayiko, añade que este tipo de indicaciones (“mientras no haya datos más fiables...”) puede valer también para otros datos que se recogen en el documento

Montserrat Rejado, Directora de Inserción Social, quiere hacer algunas puntualizaciones al capítulo 3.5. (Inserción y empleo). Comenta que en dicho capítulo se marcan algunas actuaciones que luego son difíciles de cumplir por parte del Dpto. al que representa, ya que no cuentan con datos específicos sobre la población gitana. Además recuerda que en el Consejo anterior la persona que representó al Dpto. ya dejó constancia de este tema.

Fernando comenta que es verdad que en el Consejo anterior se hizo este mismo comentario; pero también se dijo que no se estaba pidiendo al Dpto. que tuviera un registro específico donde constara quién es gitano-a y quién no. Lo que se pedía al Dpto. era un mayor acercamiento a las entidades gitanas, quienes sí pueden tener constancia de si llegan o no los recursos a las familias gitanas, o si dichos recursos son suficientemente adecuados.

Montserrat insiste que no le satisface como están expresadas algunas de las acciones de las que se responsabiliza al Dpto. al que representa; y cita algunas de las acciones concretas: 3.5.1.3., 3.5.1.6. etc.

Begoña Lasa, representante de Enseñantes con Gitanos, comenta que cuando se utiliza el término “seguimiento específico” (punto 3.5.1.2.), “situaciones específicas” (punto 3.5.1.3.) etc. tal vez se está concretando demasiado.

Izaskun añade que no es lo mismo conocer el impacto de las políticas de inserción que conocer la valoración que se hace de esas políticas de inserción desde las entidades gitanas.

Montserratek azpimarratu du ez dutela gero bete ezin izango duten konpromisorik hartuko, eta Fernandok esan du jarraipena egiteko metodologia ezberdinak eta parte-hartzaileak bilatu behar direla.

Oscarren ustez sailak eta ijitoen elkarrekin lan egiteko bidea irekitzeko modu bat da, eta horrek eragin positiboa izango du ijito herriarengan.

Jose Ramonek aldaketa kualitatiboa behar dela azpimarratu du.

Fernandok honako hau proposatu du: "jarraipen berezia" kendu eta "jarraipen kualitatiboa" jartzea, eta onartu egin da.

Izaskunek tratu txarren kasuan (3.5.1.6 ekintza) zaila izango dela esan du, emakumezko ijitoekin elkarriketak eginda baino ezin izango baita egin, beraz, sailek horri buruzko datuak eman beharko lituzkete.

Fernandok proposatu du ekintza jakinetan ijitoen elkarrekin ere barne hartzea eta ijitoen "erregistro" bat egiteak abantaila baino desabantaila gehiago dituela gogorarazi du, nahiz eta ekintza positiboak burutzeko izan (gai honi buruz batzordean luze eta zabal eztabaidatu dutela esan du).

Izaskunek, orduan, 3.5.1.6 ekintzatik "eragina" hitza kentzea proposatu du.

Eduardo Motos Barakaldoko Ijitoen elkarteko ordezkariak azaldu duenez, zenbait gatazkatan – esaterako, emakume ijitoak tratu txarreatik salaketa jartzeko zailtasunak dituenean – ijitoen elkarrengana edo "errespetuzko ijitoengana" jo daiteke. Haiek izaten dituzte egoera horien aurrean erantzun bat, behin-behinekoa bada ere, emateko tresnak: aldi baterako erbesteratzea, eta abar.

Pilar Astiazaranek, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluko ordezkariak, esan du, badirela salaketarik jarri edo inorengana jo nahi ez duten ijitoak.

Eduardok errepikatu du hori errespetuzko pertsona nor den arabera izan daitekeela, esku hartu behar duen lagun horrek ez badu jendearen errespeturik, ezin izango duela egin, alegia.

Montserratek insiste en que no pueden comprometerse a algo que luego no pueden hacer y Fernando en que se trata de buscar metodología variadas y participativas para realizar el seguimiento.

Oscar plantea que es una vía de abrir puertas para colaborar desde las asociaciones con los departamentos y esto repercutirá positivamente en el pueblo gitano.

Jose Ramón insiste en la necesidad de cambio cualitativo

Fernando propone cambiar el "seguimiento específico" por "seguimiento cualitativo" y se acepta.

Izaskun plantea la dificultad en el caso de maltrato (actuación 3.5.1.6) para abordarla si no es a través de entrevistas con mujeres gitanas, por lo que los departamentos tendrían que dar datos al respecto.

Fernando propone incluir a las entidades gitanas en determinadas actuaciones y recuerda que hay más desventajas que ventajas a la hora de realizar un "registro" de personas gitanas, incluso para acciones positivas (sobre este tema indica que se ha debatido ampliamente en la comisión)

Izaskun propone entonces quitar la palabra "impacto" de la actuación 3.5.1.6

Eduardo Motos, representante de Asociación de Gitanos-as de Barakaldo, comenta que en algunos conflictos – por ejemplo cuando la mujer gitana tiene dificultades para poner denuncia por maltrato- se puede contar con las organizaciones gitanas o con los "gitanos de respeto". Ellos tienen sus instrumentos para dar respuesta, aunque sea temporal, a algunas de estas situaciones: destierro temporal etc.

Pilar Astiazarán, representante del Consejo Vasco de Bienestar Social, matiza que hay personas gitanas que no quieren poner denuncia ni recurrir a ningún sitio.

Eduardo insiste que eso puede depender de quién sea esa persona de respeto; si el que va a intervenir no tiene reconocido ese respeto, por supuesto que no lo puede hacer.

Pilarrek aipatu du zenbait ijitok ez duela nahi ijitoen munduko inork esku har dezan.

José Ramónen ustez ez da orokortu behar. Ijitoen eta ijito ez direnen munduen artean alderik baden galdegin du... Eta alderik izanez gero, orduan, ijitoen mundua den bezala onartu behar dela. Eta hemen denak berdin tratatzen ari dira: ijitoen mundukoak izan ala ez. Baina batzuetan ezin da ijitoen nortasuna eta gauzak egiteko haien modua ahaztu. Gainera, indarkeria fisikoaz gain bada bestelako indarkeriarik ere: esate baterako, inork ez du ezer egiten egoera penagarrian bizi diren hainbat eta hainbat emakumezko ijitoren alde: eta hori ere indarkeria da.

Bartolomek aurrera egin behar dela esan du.

Izaskunek "jarraipen bateratuaren" inguruan proposamena egin eta **Fernandok** jaso egin du: jarraipenaren erantzule, EMAKUNDE eta elkarteak.

Montserratek nabarmendu du eurek ez dutela inoiz jakingo nor den ijito eta nor ez. Baina politika aktiboetatik baloratu daiteke politika horiek ijitoen kolektiboentzat egokiak diren ala ez.

Fernandok esan du, bere ustez argi eta garbi utzi nahi den kontua hau dela: gizarteratzeko gaitan Gizarteratze sailaren eta ijitoen elkartearen artean elkarlana beharrezkoa dela.

Conchik dioenez, Gipuzkoan Justiziara jotzen ari dira salaketak jartzeko. Ez da ahaztu behar ijito-komunitateak berak konpondu behar dituela gatazka-egoerak: batzuetan komunitatean bertan konpontzen dituzte eta bestetan justizia orokorrera jotzen dute.

Oscarrek gehitu du, historian zehar ijitoen legeak kasu-mota guztiak konpondu izan dituela. Orain, errespetuzko ijitoengana jo daiteke gatazkaren bat konpontzeko. Baina inork deitu gabe ezin dute esku hartu, ordea. Eta lagun orok hauta dezake ijitoen legearengana edo ijito ez denaren legearengana jotzea, eta hori errespetatu egin behar da. Gatazka konpontzeko bi bideak errespetagarriak dira, eta ez da komeni biak kontrajartzea.

Pilar añaide que hay casos en que las personas gitanas no quieren que intervenga nadie del mundo gitano.

José Ramón dice que tampoco se puede generalizar. Y pregunta si hay diferencia entre el mundo payo y el mundo gitano...Y si es verdad que hay diferencias, pues hay que aceptar al mundo gitano con su identidad. Y aquí se está dando un tratamiento igual para todos-as: sean del mundo payo o sean del mundo gitano. Pero a veces no se puede olvidar la identidad gitana y su manera de hacer las cosas. Además no existe solo la violencia física; por ejemplo nadie levanta la voz a favor de tantas mujeres gitanas que viven en situaciones infrahumanas: y esto también es violencia.

Bartolomé plantea que hay que avanzar

Fernando recoge la propuesta de "seguimiento compartido" que hace **Izaskun**: responsable del seguimiento EMAKUNDE junto a las entidades.

Montserrat insiste que ellos nunca van a saber quiénes son gitanas-os y quiénes no. En cambio, desde las políticas activas sí que se puede hacer una valoración de si dichas políticas son adecuadas para los colectivos gitanos o no.

Fernando entiende que lo que se está manifestando aquí es que en los temas de inserción debe haber coordinación entre el Dpto. de Inserción y las entidades gitanas.

Conchi indica que en Gipuzkoa sí se está recurriendo a la Justicia para poner denuncias. No hay que perder de vista que es la propia comunidad gitana la que debe ir resolviendo las situaciones de conflicto: y unas veces las resuelven dentro de la misma comunidad y otras recurren a la justicia general.

Oscar añaide que históricamente la ley gitana ha resuelto todo tipo de casos. Aquí se puede recurrir a la ley gitana de respeto para arreglar un conflicto. Lo que no pueden hacer es intervenir si no se le llama. Y toda persona puede optar por elegir la ley gitana o la paya, y hay que respetarle. Ambas maneras de solucionar el conflicto merecen respeto, y no conviene contraponerlos.

3.5.2.4. puntuari dagokionez, berak ordezkatzan duen sailak mikrokrediturik ez duela ematen adierazi du **Montserratek**.

Fernandok azaldu du sailari proposatzen ari zaiona laguntzak ematea dela, gizarteratzeko enpresak sortzeko, eta abar.

Montserraten iritziz hobe izango da parentesia kentzea (“mikrokredituak barne”).

Rosak azaldu du ez dela gizarteratze-enpresei buruz ari, Lan sailari buruz baizik.

Fernandok testua dagoen-dagoenean uzteko proposatu du, eta onartu egin da.

Izaskunek dokumentuko seigarren orrialdeari buruz hitz egin nahi du orain, bertan ijito herriaren nortasunaren inguruko zenbait alderdi aipatzen baitira. Hain justu, “komunitate horretan emakumeek eta gizonek eskubide berdinak ez dituztelako pertzepzioa” esamoldea nahasgarria dela uste du.

Rosak zehaztu du ez dela esaten errealitatea hori denik, baizik eta ijitoen mundutik kanpora hori dela jendearen pertzepzioa.

Fernandok idazkia hobetzea proposatu du eta edukia argitzeko ñabarduraren bat gehitzea, hala nola: “komunitate horretan, bestetan baino gehiago, emakumeek eta gizonek eskubide berdinak ez dituztelako pertzepzioa”. Testu berria onartu da.

Manuel Vizarraga, Kalé dor Kayiko elkartekoa, ados dago esaten ari diren guztiarekin, baina Ijito Herriari buruzko zerbait jakin nahi denean, ijitoen elkarteak hortxe, edozertarako prest, daudela aipatu du. Denbora luzea daramagu Plana gora eta plana behera, eta bizkortu egin behar da. Gaur egun gizarteak Ijito Herriaz duen irudia gauza negatiboekin lotuta dago. Eta irudi negatibo hori da ezabatu behar duguna. Lanak emango dizkigu, baina elkarlanean aritzea baino beste irtenbiderik ez dago. Eta Plana hori lortzeko lagungarri izan daiteke. Gaia latza da: esaterako, etorkin asko ijitoak dira, baina esango balute, ondorio negatiboak izango lituzke eurengan.

Bartolomek ekarpen guztiengatik eskerrak eman dizkie eta izandako ekarpen guztien laburpena egiteko eskatu du.

Montserrat, refiriéndose al punto 3.5.2.4. indica que el Dpto. al que representa no da microcréditos.

Fernando explica que lo que se está proponiendo al Dpto. es que dé apoyos para la creación de empresas de inserción etc.

Montserrat ve mejor que se quite el paréntesis (“incluyendo microcréditos”).

Rosa explica que no se refiere a empresas de inserción sino al Departamento de Empleo

Fernando propone dejar el texto como está, y se acepta.

Izaskun quiere referirse ahora a la página seis del documento donde se hace referencia a algunos aspectos de la identidad del pueblo gitano. En concreto cree que la expresión “la percepción de que se trata de una comunidad en la que las mujeres y los hombres no disfrutan de los mismos derechos”, es una expresión confusa.

Rosa matiza que no se dice que esa sea la realidad, sino que es la percepción que se tiene desde fuera del mundo gitano.

Fernando propone mejorar el texto añadiéndole algún matiz que sirva para aclarar su contenido; por ejemplo: “la percepción de que se trata de una comunidad en la que las mujeres y los hombres no disfrutan de los mismos derechos en mayor medida que en otras comunidades”. Se acepta el nuevo texto.

Manuel Vizarraga, de la asociación Kalé dor Kayiko, comenta que le parece bien todo lo que se está diciendo, pero que cuando se quiera saber algo sobre el Pueblo Gitano, las organizaciones gitanas están ahí, siempre disponibles. Llevamos mucho tiempo con el Plan y hay que agilizarlo. La imagen que hay hoy socialmente del Pueblo gitano está ligada a lo negativo. Y esta imagen negativa es la que tenemos que quitar. Va a costar, pero no hay otra salida que trabajar juntos. Y el Plan puede ser una buena ayuda para conseguirlo. El tema es duro: por ej., hay muchos inmigrantes que son gitanos-as, pero no lo pueden decir por las repercusiones negativas que tendría.

Bartolomé agradece todas las aportaciones y pide un resumen de todas las habidas.

Fernandok onartutako ekarpen guztiak laburbildu ditu.

Kontseiluaren izenean, **Bartolomek** Plana onartutzat eman du.

Fernandok batzordean izandako eztabaida sakonak gogorarazi ditu eta prozesuan parte hartu ahal izana eskertu du.

Bartolomek Fernando zoriondu du eman duen laguntzarengatik, eta gai-zerrendako hurrengo puntura igaro da, "Idazkaritza Teknikoa" abiaraztearen gaineko Batzordeen informaziora.

Dekretuak Idazkaritza Teknikoari emandako eginkizunak gogorarazi ditu **Angelek**, ijitoen elkarteek parte har zezaten lortzea interesgarria zela, baita lehen fase honetan, sei hilabeterako kanpo kontratazioaren bitartez egingo zela ere. Elkarteen akordioaren akta aurkeztu du, non elkarteek Idazkaritza Teknikotik espero dutena azaltzen baitute. Gizarte Gaietako sailak dagokion mekanismoa martxan jarri du eta Elkarteek proposatutako lau erakundeetara (Enseñantes con Gitanos, Gipuzkoako Caritas, EDE eta Eskutik Eskura) proposamenak aurkezteko baldintza-orria bidaliko dute laster batean, hartara lehenbailehen ebatzi eta abuztu hasierarako martxan egon dadin.

Gai-zerrendako 5. puntura pasa da: "Batzerde Iraunkorra" eta izan daitezkeen beste batzordeak osatzea".

Angelek proposatu du Batzordeak Plana aurrera doan heinean osatzea eta oraingoz, Batzerde Iraunkorra eta Ijito Erakundeen Batzerdea soilik osatzea. "Batzerde Iraunkorra" "Plana egiteko Batzordean" parte hartu duten lagunekin osatzea proposatu du.

Begoñaren ustez oso garrantzitsua da Batzerde Iraunkorrean Gizareratze saila egotea. Eta "Enseñantes con Gitanos" elkarte Batzerde Iraunkorreko kide izatearen inguruan, ijitoen aldeko hiru erakundeen artean baloratu beharko litzatekeela planteatu du.

Rosak galdetu du ea "aholkulari" gisa Batzerde Iraunkorrean parte hartzerik badagoen.

Fernando resume todas las aportaciones aprobadas

Bartolomé en nombre del Consejo da por aprobado el Plan.

Fernando recuerda los intensos debates habidos en la comisión y agradece el haber podido participar en este proceso.

Bartolomé felicita a Fernando por la ayuda prestada y pasa al siguiente punto del orden del día, información de las Comisiones sobre la puesta en marcha de la "Secretaría Técnica.

Angel recuerda las funciones que otorga el Decreto a la Secretaría Técnica, el interés por contar con la participación de las asociaciones gitanas y que en esta primera fase se haría mediante contratación externa por seis meses. Presenta el acta del acuerdo de las asociaciones que aclaran lo que esperan de la Secretaría Técnica. El departamento de Asuntos Sociales ha puesto en marcha el mecanismo correspondiente y en breve enviarán a las cuatro entidades propuestas por las Asociaciones (Enseñantes con Gitanos. Caritas de Gipuzkoa, EDE y Eskutik Eskura) el pliego de condiciones para que presenten su propuesta y resolver a la mayor brevedad posible para que pueda estar en marcha a primeros de agosto.

Se pasa al punto 5 del orden del día "Constitución de la "Comisión Permanente" y otras posibles comisiones"

Angel propone que las comisiones se vayan constituyendo a medida que se pone en marcha el Plan y que de momento se formen únicamente una Comisión Permanente y la Comisión de entidades Gitanas. Propone que la "Comisión Permanente" la formen quienes han constituido la "Comisión de elaboración del Plan".

Begoña indica que en la Permanente sería muy importante la presencia del Dpto. de Inserción. Y en cuanto a la presencia de "Enseñantes con Gitanos" en la Permanente, plantea valorarlo entre las tres entidades progitanas.

Rosa pregunta si no se puede participar en la Permanente como "asesores".

Angelek gogorarazi du, Dekretuaren arabera, 14 kide izan behar dutela, eta modu paritarioan, gainera. Horretaz gain, Gizarteratze saila egotea garrantzitsua litzatekeela onartu du, sail horretan bertan Justizia eta Lana ere barne hartzen baitira. Agian, Kultura eta Gizarteratze sailen artean negoziata litekeela proposatu du.

Patxi Sandín Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietako zuzendariaren esanetan, Aldundien ordezkari bakarra egon daiteke, eta horrela Gizarteratze sailak ere parte hartzeko aukera izan dezake.

Angelek zehaztu du, gainera, orain arte bezala, informazio guztia Kontseilukide guztiei bidaliko zaiela, Batzorde Iraunkorreetan egon ala ez, eta Kontseiluko edozein kidek Batzorde Iraunkorreetan bertaratzeko ateak zabalik izango dituela.

Mari Carmen Marínek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen Foru Diputatuak, esan du ongi legokeela hiru Aldundiak ados jarri eta urtero batek parte hartzea Batzorde Iraunkorreetan, horrela haien artean koordinatzea ere errazagoa izanik.

Patxi Sandin ados dago.

Angelek aipatu du asmoa dela Plana abuzturako onartua egotea, eta sail eta administrazioei gogorarazi die Plana kontuan izateko euren aurrekontuetan.

Bartolomek 5. puntua itxiztat eman du eta "eskari eta galderen" txanda hasi da. Bartolomek berak Iniziativa Gitana elkarteak eman dion agiri-gutuna aurkeztu du; agirian kexaren arrazoia agertzen du elkarteak. Kontseilukide guztiei agiriaren kopia bana eman die, guztiek izan dezaten zuzenean gutunaren edukiaren berri. Tartetxo bat utzi da norberak agiria irakur dezan.

Angelek hitza hartu du eta Sestaoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, ados jarrita, aurreikusitako birkokatze-prozesuaren (oraindik gauzatzeko dagoena) nondik norakoak azaldu ditu, baita prozesuan izaten ari diren zailtasunak ere. Gauzak ez dira sailak nahi izango lukeen moduan ateratzen ari, hori onartu du, eta birkokatzea atzeratzen ari diren

Angel recuerda que el Decreto dice que deben ser 14 miembros y de forma paritaria. Y reconoce también la importancia de la presencia de Inserción, ya que en el mismo Dpto. están también Justicia y Trabajo. Propone que quizá se podría negociar entre Cultura e Inserción.

Patxi Sandín, Director de Asuntos Sociales de la Diputación Foral de Araba, propone que de Diputaciones podría estar una sola persona para que pueda estar Inserción.

Angel matiza que además, como se ha estado haciendo hasta ahora, toda la información se continuará enviando a todos los miembros del Consejo, estén en la Permanente o no, y además se estará abiertos a la presencia de cualquier miembro del Consejo en la Permanente.

Mari Carmen Marín, Diputada Foral de Derechos Humanos de la Diputación Foral de Guipúzcoa, manifiesta que estaría bien que las tres Diputaciones se pongan de acuerdo para que cada año sea una Diputación la que participe en la Permanente, lo que ayudaría a la coordinación entre ellas.

Patxi Sandin manifiesta su acuerdo.

Angel añade que la idea es que el Plan pueda estar aprobado para agosto, y recuerda a los distintos Dptos. y Administraciones que vayan teniendo en cuenta el Plan en sus presupuestos.

Bartolomé da por cerrado el punto 5 y abre el turno para los "ruegos y preguntas" El mismo continúa con la palabra para presentar el documento-carta que le ha entregado la asociación Iniziativa Gitana, y en la que indica la razón de la protesta. Reparte copia del documento a todas/os los miembros del Consejo para que conozcan directamente el contenido de la carta.

Se deja un rato para dicha lectura personal.

Angel toma la palabra y explica cuál ha sido la historia del proceso de realojo previsto de mutuo acuerdo entre el Ayto. de Sestao y el G.V.(todavía sin realizar), así como las dificultades que se están encontrando en dicho proceso. Reconoce que no están saliendo las cosas como hubiera querido el Dpto., y que han ido apareciendo en el



elementuak agertzen ari direla azaldu du; baina, elementu horiek, atzeratzearekin batera, birkokatze honi eta gainerakoei bermea gehitu diezaiekeela.

Bartolomeren ustez, Iniciativa Gitana elkarteak nahi duen gauza bakarra, oraindik erantzunik izan ez duen gizarte eskaera bat ezagutaraztea da.

José Ramónen aburuz, gai hori ez da gaur aztertzekoa.

Manuelek esan du argi utzi nahi duela beraiek ez zutela horren berri eta gai hori ez dela "Ijitoen Batzordean" aipatu ere egin.

Honekin, bilera amaitutzat jo da eta bertaratutako guztiak kafe bat hartzera gonbidatu dituzte.

proceso elementos que están atrasando el realojo, pero que a la vez pueden añadir garantía a éste y a los demás realojos.

Bartolomé entiende que Iniciativa Gitana lo único que busca es dar a conocer una demanda social a la que todavía no se ha dado respuesta.

José Ramón cree que no procede esto hoy.

Manuel quiere que se haga constar que ellos no sabían nada, y que este tema no se ha comentado en la "Comisión Gitana".

De esta manera se da por terminada la reunión y se invita a todas y todos a tomar un café.

O.E. KONTSEILUBURUA

VBº EL PRESIDENTE

IDAZKARIA

SECRETARIA/O